

## GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Nafarroa Milango Erakusketa Unibertsalean sustatuko da astelehenetik aurrera

*Astean zehar, Foru Komunitateko baliabide ekonomiko, turistiko, kultural eta gastronomikoak Espainiako Pabiloian ezagutaraziko dira*

Viernes, 29 de mayo de 2015

Nafarroa [2015eko Milango Erakusketa Unibertsalean](#) sustatuko da datorren astelehenetik aurrera, Foru Komunitatearen astea [Espainiako Pabiloian](#) ospatzen dela-eta (ekainaren 1etik 7ra izango da).

Jardunaldi nagusia asteartean, hilak 2, izango da bertan egingo den ekitaldi instituzionalarekin; ekitaldi horretan, Nafarroako jarduneko Lehendakari Yolanda Barcina eta Kultura, Turismo eta Erakunde Harremanetako jarduneko kontseilari Juan Luis Sánchez de Muniáin egongo direla espero da; dena den, aste guztian, hainbat ekitaldi egingo dira Foru Komunitateko baliabide ekonomiko, turistiko, kultural eta gastronomikoak ezagutarazteko.



Iruñeko Udaleko Txistularien Bandak Milango Erakusketa Unibertsalean parte hartuko du.

Programaren barnean Iruñeko Udaleko Txistularien Bandaren kontzertua sartuko da, bai eta erakustaldi gastronomikoak ere Alex Múgica eta Arantxa Sagastibelza sukaldarien eskutik; horrekin batera, Carlos Rodríguez tabernari nafarrak koktelak dastatzeko aukera eskainiko du.

Gainera, Foru Komunitateko sustapen-elementuak jarriko dira, esaterako: turismoko bideo eta argazkiak, objektu adierazgarriak eta italieraz nahiz beste hizkuntz batzuetan idatzitako argitalpenak, nazioarteko erakusleho horrek eskaintzen dituen sustapen-aukerak baliatzeko.

Milango Nazioarteko Erakusketa (ExpoMilano 2015) maiatzaren 1etik urriaren 31ra egingo da. Espainiako pabiloian 2,2 miloi bisitari izatea espero da hitzorduak irauten dituen 184 egun horietan, hau da, 12.000 pertsona egunero.

### Emanaldi kultural eta gastronomikoak

Nafarroako Gobernuak Erakunde Harremanetako eta Turismo nahiz Merkataritzako zuzendaritza nagusiek eta INTIA enpresa publikoak prestatutako programaren barnean, jardunaldi bakoitzean emanaldiak izatea aurreikusten da.

Iruñeko Udaleko Txistularien Bandak astelehenetik igandera bost emanaldi eskainiko ditu egunero, 11:00, 12:00, 14:00, 16:00 eta 17:30ean, Espainiako Pabiloiko erabilera anitzeko aretoan; kontzertu bakoitzak 15 minutu inguru iraungo du.

Bandaren ohiko emanaldien errepertorioa interpretatuko du, eta haien artean nabarmentzen dira; zortzikoak, kalejirak, biribilketak, minuetak, kontrapasak, *alkate soinuak*, fandangoa, arin-arina eta herri-dantzak, Nafarroako musika tradizionalaren ondarearen adierazpen bat direnak, berariazko kontzertuko obrekin batera.

Gainera, lau erakustaldi gastronomiko antolatu dira (*show cooking*) Nafarroako produktu bereizgarriekin, Alex Múgica eta Arantxa Sagastibelza sukaldarien eskutik (Iruñeko La Perla hoteleko Alex Mugica jatetxekoak). Bi erakustaldi astelehenean, hilak 1, egingo dira, eta beste bi, asteartean, Nafarroaren Egunean, 12:00etan eta 18:00etan.

Haiek amaitzean, Carlos Rodríguez tabernari nafarrak Foru Komunitateko produktu bereizgarriekin egindako lau koktel-dastatze izango dira.